

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Xebastian Retegi Mitxelena*

*Errenteria,  
Gipuzkoa  
(1929-2018)*

Aurkibidea



## Biografia



Errenteria-Oreretako Egi-Luze Mendikoa baserrian jaio zen Xebastian eta han bizi izan da beti, Egi-Luze sagardotegia dagoen baserrian, alegia. Aita Egi-Luze bertakoa zuen eta ama, berriz, Añarbeko Pikorrene baserrikoa. Zazpi anai-arrebatan bera izan da gazteena. Aitak Landarbasoko kobetan egiten zuen lan perretxikoak hazten eta hura utzi zuenean baserrian aritu zen. Xebastian Zamalbide auzoko Tolare-Berri eskolan ibili zen 6-7 urterekin hasi eta 12 bete arte. Geroago, auzoko beste mutil bat eta biak Errenteriako kaleko eskola publikora jaisten ziren gaztelaniaz ez zekitela-eta ikastea komeni zitzaizela erabaki baitzuten gurasoek. Hamalau urterekin utzi zuen eskola. Donostiako Udaleko langilea izan zen konponketak egiten, basolanetan ere aritu zen eta Landarbasoko zentraleko langile ere izan zen. Baina sagardogintza izan da bere zeregin nagusia. 1945 inguruan sagardotegia martxa jarri zuten baserrian eta geroztik beti izan da sagardotegia bertan.

## Zintak

### ERR-017

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2010-04-09
- **Iraupena:** 112 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

# Pasarteak

## 1. Aita perretxikoak hazten

- **Erref:** ERR-017/003
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:02:59. **Bukatu:** 00:04:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Natura » Flora
- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

### Laburpena:

Landarbasoko kobazuloetan perretxikoak hazten zituen aita, baserrian lana egiteaz gainera.

## 2. Baserriko bizimodua

- **Erref:** ERR-017/004
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:04:36. **Bukatu:** 00:07:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

### Laburpena:

Zazpi senidetan gazteena. Behiak eta behorrak zituzten. Kalera joaten ziren egunero esnea eta barazkiak saltzera. Auto gutxi zegoen. Alkatea motoan ibiltzen zen.

## 3. Esnea saltzera kalera

- **Erref:** ERR-017/005
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:07:19. **Bukatu:** 00:11:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

### Laburpena:

Izeba soltera joaten zen etxez etxe saltzera, Erreteriarra; ama eta arreba ere bai. Azkenaldian emaztea, kotxearekin. Goizeko seietan jaikitzen ziren behiak jeztera. Behorrekarekin joaten ziren. Gero zaldi karroarekin eta ondoren autoz. Gero eta gastu handiagoa. Zaldi karroa baserri gutxitan zuten. Erreterian 5-6 zeuden.

## 4. Eskolara Tolareberrira

- **Erref:** ERR-017/007
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:11:58. **Bukatu:** 00:16:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

**Laburpena:**

<p>Ordubeteko bidea zuten oinez. Gutxi joaten ziren kalera, elizara. Tolareberrira joaten zen eskolara. Don Pedro apaiza zen maisuetako bat; gogorra ei zen. 12 urte arte ibili zen han, eta gero Erreterian ibili zen. Euskarari ez zitzaion garrantzirik ematen. Erdara ikastea inportantea zen, eta horregatik jarraitu zuen ikasten.</p>

**5. Tolaretik eskola publikoetara**

- **Erref:** ERR-017/008
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:16:13. **Bukatu:** 00:17:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Tolaren eskolan euskaraz hitz egiten zuten, baina idatzi erdaraz. Gaurko euskara zaila egiten zaio. Eskola publikoetan dena erdaraz ikasi zuen.

**6. Mutikotako jolasak**

- **Erref:** ERR-017/010
- **Iraupena:** 0:05:04. **Hasi:** 00:18:12. **Bukatu:** 00:23:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

Neskak eta mutilak aparte egoten ziren. Inguruko mutilak elkartu, eta boletan egiten zuten. Pilotan aritzen ziren. Balairik ez zen izaten. Habietatik txorikumeak harrapatzen zituzten: zozoak, birigarroak, okilak... Tiragomarekin ere ibiltzen ziren txoritan.

**7. Ehiza eta arrantza**

- **Erref:** ERR-017/011
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:23:16. **Bukatu:** 00:24:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

**Laburpena:**

Hegaberak lazoarekin harrapatzen saiatu izan da. Arrantzan, amurrainak eskuz, Landarbasoko errekan.

**8. Gereziak batzen, arbolara igota**

- **Erref:** ERR-017/012
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 00:24:49. **Bukatu:** 00:28:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

**Laburpena:**

Fruta arbola asko zuten: muxikak, aranak, gereziak... gustura ibiltzen zen arbola gainean. Gerezi arbolatik eroritakoak ere ezagutzen ditu. Gerezi motak.

**9. Sagar arbolak**

- **Erref:** ERR-017/013
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:28:58. **Bukatu:** 00:32:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

**Laburpena:**

<p>Sagar arbola asko zegoen. Gutxitzen joan da. Erreterian hiru sagardotegi zeuden. Saltzeko zaila zen eta lana ematen zuen sagarrak. Gerezia saltzen zen ondoen plazan. Sagar motak.</p>

**10. 17 urterekin Donostiara lanera**

- **Erref:** ERR-017/014
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:32:29. **Bukatu:** 00:33:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak

**Laburpena:**

14 urterekin eskola utzi, eta baserrian hasi zen lanean. 17 urterekin Donostiako Udalean hasi zen, anairen orde. Pinua landatzen ere ibilia da.

**11. Bizikletan lanera**

- **Erref:** ERR-017/016
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:34:22. **Bukatu:** 00:38:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena:**

Bizikletan joaten zen Donostiara lanera, 17 urterekin. Anaia zaharrenak soldadu joan ziren gerrara; bitartean bizikleta ibiltzeko esaten zioten. Orain erregeak bezala bizi garela dio.

**12. Sukaldeko lanak emakumeek**

- **Erref:** ERR-017/017

- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:38:32. **Bukatu:** 00:39:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena:**

Sukaldean ez du ikasi; emakumeek egin dute beti lan hori. Babarruna jaten zuten egunero, eta jaietan garbantzua. Pitarra edaten zuten, etxean egina.

### 13. Sagardoa eta pitarra egiten

- **Erref:** ERR-017/018
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:39:44. **Bukatu:** 00:42:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza

**Laburpena:**

Sagardoa egiteko Otsozulueta joaten ziren. Garlian eramaten zuten sagardoa. Gurdia erori zitzaion bidean behin. Baldeka hustutzen zuten kupelera. Sagardoa kanpokoentzat izaten zen; etxeakoentzat pitarra.

### 14. Errotara, artoarekin

- **Erref:** ERR-017/019
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:42:54. **Bukatu:** 00:43:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena:**

Taloak egiten zituzten. Nora joaten ziren errotara. Nafarroara ere joaten ziren, gerra garaian.

### 15. Gerrako kontuak

- **Erref:** ERR-017/021
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:44:15. **Bukatu:** 00:47:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena:**

Gerra hasi zenean 7 urte zituen. Tiroketak gogoratzen ditu. Arreba balak zauritu zuen. Soldaduak ere izan zituzten etxean. Lubakiak. Bi anaia soldadu joan ziren, kintak harrapatuta, eta bat hil egin zen.

## 16. Aita kartzelara eraman zuten

- **Erref:** ERR-017/022
- **Iraupena:** 0:04:27. **Hasi:** 00:47:12. **Bukatu:** 00:51:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

### Laburpena:

Etxean soldaduak izan zituztenean, kafesnea prestatu zieten. Gorritakoek aita kartzelara eraman zuten, Hernanira, Erreenteriako bi mutili Nafarroara pasatzeko bidea erakusteagatik.

## 17. Bordaxarko mutilen heriotza

- **Erref:** ERR-017/024
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:51:51. **Bukatu:** 00:53:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

### Laburpena:

Bordaxarko batzuk hil zituzten gerra garaian. Zapirain. Ehizako eskopetak ezkutatu egin zituzten, eta horregatik.

## 18. Bilerak

- **Erref:** ERR-017/026
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:53:52. **Bukatu:** 00:55:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

### Laburpena:

Usaskun bilera izaten zen igandetan. Hantxe ezagutu zuen emaztea, hernaniarra.

## 19. 8-9 urte nobiotan

- **Erref:** ERR-017/028
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:56:02. **Bukatu:** 00:57:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

### Laburpena:

8-9 urte egin zituzten nobiotan. Orain ezkondata ere ez dute hainbeste irauten. Ikutu ere egin gabe ibiltzen ziren.

## 20. Ezkondu zirenekoa

- **Erref:** ERR-017/030
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:57:34. **Bukatu:** 00:59:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

### Laburpena:

Ezkondu gabe elkarrekin bizitzea bekatu handia zen. Martutenen egin zuten bazkaria, eta Bilbon pasatu zituzten zortzi egun. Ereñozun ezkondu ziren.

## 21. Egiluze sagardotegia

- **Erref:** ERR-017/032
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 01:00:09. **Bukatu:** 01:03:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

### Laburpena:

Egiluzen sagardotegia dago. Amak erosi zuen tolarea. Auzokoentzat ere egin izan dute sagardoa. Tolareko lanak.

## 22. Sagardotegiko giroa I

- **Erref:** ERR-017/034
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 01:05:28. **Bukatu:** 01:08:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

### Laburpena:

Sardinak eta tortilla jartzen zuten. Mozkortu eta gaua bertan pasatzen zuenik ere bazen. Emakumeak azpiko arroparekin etortzen ziren, senarrentzat, sagardotegira.

## 23. Sagardotegiko giroa II

- **Erref:** ERR-017/035
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:08:59. **Bukatu:** 01:10:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

### Laburpena:

Bertsotan hasten ziren edandakoan, eta baita borrokan ere bai. Gizon borrokazale baten anekdota.



## 24. Antzinako sagardogintza

- **Erref:** ERR-017/039
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 01:15:21. **Bukatu:** 01:17:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

### Laburpena:

Sagarra pisiorekin jotzen zuten sasoi batean. Idiekin estutzen zuten prentsa batzuek. Aurrerapenak.

## 25. Sagardotegi asko zeuden lehen

- **Erref:** ERR-017/041
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:24:09. **Bukatu:** 01:25:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

### Laburpena:

Itxitako sagardotegiak aipatzen ditu. Errenterian sagardotegi bakarra da beraiena.

## 26. Pinuaren gainbehera

- **Erref:** ERR-017/045
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 01:29:20. **Bukatu:** 01:29:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

### Laburpena:

Pinuak dezente balio zuen lehen. Orain ez. Egurrak balioa galdu du.

## 27. Egurra txikitzen, okindegiatarako

- **Erref:** ERR-017/047
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 01:30:39. **Bukatu:** 01:33:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

### Laburpena:

Baserriko bizimodua. Egurra mozten zuten okindegiterako. Gurdian eramaten zuten anaiak. Bizimodua asko aldatu da.

## 28. Ur korrontea, aldaketa onena

- **Erref:** ERR-017/048
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:33:28. **Bukatu:** 01:35:50

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

**Laburpena:**

Gurdibideak. Oinetakoak aldatzen zituzten Erreenteriara iristean. Ur korrontea izan da berarentzat aldaketarik onena etxean. Beraiek bazuetn argindarra, baina ez zutenak ere ezagutu zituen.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-03-01*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com